## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*540/2013 FORU AGINDUA, ekainaren 6koa, ««Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitorpen informatiboa» izeneko 548 eredua onartzen duena.*

Martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duenak, 14.1 artikuluan ezartzen duenez, subjektu pasiboak behartuta daude fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuen erosleei jasanaraztera sortutako kuoten zenbatekoa, eta, erosleek, beraz, kuota horiek jasateko obligazioa dute. Artikulu horrek berak 2. apartatuan jasotakoaren arabera, etendura araubidean egindako fabrikazio, eraldaketa edo biltegiratzea inoren konturakoa denean, subjektu pasiboak eragiketa norentzat egiten duen eta hari jasanarazi behar dio sortutako kuoten zenbatekoa.

Abenduaren 28ko 1.715/2012 Errege Dekretuak, uztailaren 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zerga Berezien Erregelamendua aldatu eta tributuen esparruarekin lotutako beste xedapen batzuk sartzen dituenak, ezarri du gordailuzain baimenduak behartuta daudela pertsonen edo entitateen aldizkako aitorpen informatibo bat aurkeztera haientzako fabrikazio, eraldaketa edo biltegiratzea etendura araubidean egiten dutenean. Alde horretatik, zerga berezien erregelamenduak 45.6 artikuluan ezartzen du aitorpenean identifikatu beharko dela eragiketa zein pertsona edo entitaterentzat egiten den, zer motatako produktuak diren eta zelako elementu erabili diren jasanarazitako kuotak edo salbuespenen bat aplikatutakoak kuantifikatzeko.

Informazio hori emateko erabili beharreko eredu informatiboa onartuko bada, aldatu beharra dago otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituena. Aldaketak bi helburu ditu: Foru agindu horretan jasota dauden ereduen zerrendari «Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitorpen informatiboa» izeneko 548 eredua berria gehitzea, eta eredua aurkeztera behartutakoak eta aurkezteko baldintzak eta epeak ezartzea.

Foru agindu honek lehen aipatutako 20/1998 Foru Dekretuaren 14. artikuluaren 2. apartatuan aipatzen diren kasuetara mugatzen du aitorpen informatiboaren aurkezpena, hau da, produktuen jabeei kuotak jasanarazten zaizkien kasuetara –elektrizitatearen gaineko zergan izan ezik–, baina horrek ez du eragozten etorkizunean haren edukia zabaltzea zerga berezien erregelamenduko 45.6 artikuluak azkenaurreko paragrafoan jasotakoaren arabera.

Produktuen erosleei zerga zuzenean jasanarazita egiten dituzten entregengatik aitorpen informatiboa aurkezteko obligazioa geroratu egin da gordailuzain baimenduentzat –produktuen jabe direnentzat–, eta horren arrazoia izan da komenigarritzat jo dela obligazio hori une hauetan ez zabaltzea, hainbat sektoretan – edari alkoholdunen sektorean bereziki– bolumen txikiko eragiketa ugari egin daitezkeelako, are xede ez-komertzialetarako ere.

Azpimarratzekoa da eredu berriak aukera ematen duela aitorpen bakar batean aitortzaile batek Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuak dituen establezimendu guztiei buruzko informazioa jasotzeko.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*ORDEN FORAL 540/2013, de 6 de junio, por la que se aprueba el modelo 548, «Impuestos Especiales de fabricación. Declaración informativa de cuotas repercutidas».*

El artículo 14 del Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, establece en su apartado 1 la obligación de los sujetos pasivos de repercutir el importe de las cuotas devengadas sobre los adquirentes de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, quedando éstos, por tanto, obligados a soportarlas. Este mismo artículo, en su apartado 2, precisa que, cuando la fabricación, la transformación o el almacenamiento en régimen suspensivo se realicen por cuenta ajena, el sujeto pasivo deberá repercutir el importe de las cuotas devengadas sobre aquel para el que se realiza la operación.

El Real Decreto 1.715/2012, de 28 de diciembre, por el que se modifica el Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por Real Decreto 1.165/1995, de 7 de julio, y se introducen otras disposiciones relacionadas con el ámbito tributario, crea para los depositarios autorizados la obligación de presentar una declaración informativa periódica de las personas o entidades para quienes realicen la fabricación, transformación o almacenamiento en régimen suspensivo. De esta forma, el artículo 45.6 del Reglamento de los Impuestos Especiales precisa que la declaración ha de contener la información relativa a la identificación de la persona o entidad para quien se realiza la operación, la clase de productos y los elementos de cuantificación de las cuotas repercutidas o con aplicación de una exención.

Con el objeto de aprobar el modelo informativo requerido para el suministro de tal información, se modifica la Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, por la que se aprueban determinados modelos y se refunden y actualizan diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales, incorporando a la relación de los distintos modelos prevista en la citada Orden Foral el nuevo modelo 548 «Impuestos Especiales de fabricación. Declaración informativa de cuotas repercutidas», y estableciendo los obligados tributarios, condiciones y plazos para su presentación.

La presente Orden Foral limita la presentación de la declaración informativa a los supuestos de repercusión a que se refiere el apartado 2 del artículo 14 del Decreto Foral 20/1998 antes citado, es decir, a los supuestos de repercusión de cuotas a propietarios de productos, excepto el Impuesto sobre la Electricidad, sin perjuicio de que en el futuro se amplíe su contenido en los términos previstos en el penúltimo párrafo del citado artículo 45.6 del Reglamento de los Impuestos Especiales.

El aplazamiento de la exigencia de la obligación de presentar la declaración informativa a los depositarios autorizados propietarios de los productos por las entregas con repercusión directa del impuesto a los adquirentes de los mismos, se justifica por la conveniencia de no extenderla, en el momento actual, dado el elevado número de operaciones de pequeño volumen que pueden realizarse incluso con fines no comerciales, especialmente en el sector de las bebidas alcohólicas.

Reseñar que el nuevo modelo posibilita que con una sola declaración pueda presentarse la información relativa a los establecimientos sitos en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de un mismo declarante.

2013ko ekainari dagokion informazioarekin aurkeztuko da aurreneko aldiz eredua.

Amaierako bigarren xedapenak jasotzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak beharrezko xedapenak eman ditzake gorago aipatutako 20/1998 Foru Dekretuan xedatutakoa garatu eta gauzatzeko.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzea.*

Aldaketa hauek sartzen dira zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Aginduan:

*Bat.* 7. apartatua gehitzen zaio 11. artikuluari, honela dioena:

«7. Zerga berezien erregelamenduak 45.6. artikuluan ezarritako informazio obligazioa betetzearen ondorioetarako, onarturik geratzen da «Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitorpen informatiboa» izeneko 548 eredua, foru agindu honetan XXXVI bis eranskin gisa jasotzen dena.

Fabrikazio zerga berezien gordailuzain baimenduek aurkeztu behar dute 548 eredua, elektrizitatearen gaineko zergan izan ezik. Eredu horretan besteren kontura egindako eragiketak adierazi behar dituzte aitortzaileek.

Zergen sortzapena gertatu ondorengo hilabetearen lehen 25 egun naturalen barruan aurkeztu behar dute zergapekoek 548 eredua. Tiltular batek Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuak dituen establezimendu guztiak hartuko ditu aitorpenak.

548 eredua paperean zein bide elektronikoz aurkez daiteke, foru agindu honen 2.4 artikuluan jasotakoaren arabera».

*Bi.* Xedapen gehigarrian jasota dauden ereduen zerrendari ondoko hau gehitzen zaio:

«548 eredua – Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitorpen informatiboa».

*Hiru.* XXXVI bis eranskina gehitzen da, «Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitorpen informatiboa» izeneko 548 eredua, foru agindu honetan eranskin gisa jasotzen dena.

*Amaierako xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2013ko ekainaren 1etik aurrera egindako eragiketei aplikatuko zaie.

Donostia, 2013ko ekainaren 5a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(5565) (5968)

ERANSKINA

«XXXVI bis ERANSKINA

El modelo se presentará por vez primera con la información relativa al mes de junio de 2013.

La disposición final segunda habilita a la Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en el Decreto Foral 20/1998 citado anteriormente.

En su virtud

DISPONGO

*Artículo único. Modificación de la Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, por la que se aprueban determinados modelos y se refunden y actualizan diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales.*

Se introducen las siguientes modificaciones en la Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, por la que se aprueban determinados modelos y se refunden y actualizan diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales:

*Uno.* Se añade un apartado 7 al artículo 11, con el siguiente contenido:

«7. A los efectos del cumplimiento de la obligación de información prevista en el artículo 45.6 del Reglamento de los Impuestos Especiales, se aprueba el modelo 548 - Impuestos Especiales de fabricación. Declaración informativa de cuotas repercutidas -, que se adjunta como anexo XXXVI bis a la presente Orden Foral.

El modelo 548 deberá ser presentado por los depositarios autorizados de los Impuestos Especiales de Fabricación, con excepción del Impuesto sobre la Electricidad. Los declarantes cumplimentarán las operaciones realizadas por cuenta ajena.

Los obligados tributarios presentarán el modelo 548 en los 25 primeros días naturales del mes siguiente al que se hayan producido el devengo de los impuestos. La declaración comprenderá todos los establecimientos sitos en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de un mismo titular.

El modelo 548 podrá presentarse en soporte papel o por vía electrónica, con arreglo a lo previsto en el artículo 2.4 de la presente Orden Foral».

*Dos.* Se incorpora a la relación de modelos prevista en la disposición adicional el siguiente modelo:

«Modelo 548 - Impuestos Especiales de fabricación. Declaración informativa de cuotas repercutidas».

*Tres.* Se añade un nuevo anexo XXXVI bis, modelo 548, «Impuestos Especiales de fabricación. Declaración informativa de cuotas repercutidas», que se adjunta como anexo a la presente Orden Foral.

*Disposición final.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y será de aplicación a las operaciones realizadas a partir del 1 de junio de 2013.

San Sebastián, a 5 de junio de 2013.—La diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.

(5565) (5968)

ANEXO

«ANEXO XXXVI bis

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.net/ogasuna

*8400050482013*

*Fabrikazio Zerga Bereziak*
# Impuestos especiales de fabricación

*Jasanarazitako kuoten aitorpen informatiboa*
**Declaración informativa de cuotas repercutidas**

# 548

| **Identifikazioa** *Identificación* | IFZ / NIF | JEK / CAE | **Sortzapena Devengo** | Ekitaldia/Ej…: Zergaldia/Período... |
|---|---|---|---|---|
| | Deiturak eta izena edo sozietate izena / Apellidos y Nombre o Razón Social | | | |

| **IFZ** *NIF* | **Epigrafea** *Epígrafe* | **Zerga araubidea** *Régimen fiscal* | **Kopurua** *Cantidad* | **Unitateak** *Unidades* | **Balioa** *Valor* | **Jasanarazitako kuoten zenbatekoa** *Importe cuota repercutida* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

*Administrazioaren alea* / Ejemplar para la administración

*Data* ..........................................................................
Fecha

*Aitortzailearen sinadura*
Firma del declarante

## *548 eredua betetzeko jarraibideak*

*A. GOIBURUKO DATUAK*

***Identifikazioa***

*IFZren eremuan, zergapekoaren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.*

*JEK edo JBK kodearen eremua bete behar da beti. Jarduera eta establezimendu kodea (JEK) jarri behar da.*

### *Sortzapena*

***Ekitaldia:***

*Aitortzen den zergaldiaren urtearen lau zifrak jarri behar dira.*

***Zergaldia:***

*Taula honen arabera:*

| | | | |
|---|---|---|---|
| *01 Urtarrila* | *02 Otsaila* | *03 Martxoa* | *04 Apirila* |
| *05 Maiatza* | *06 Ekaina* | *07 Uztaila* | *08 Abuztua* |
| *09 Iraila* | *10 Urria* | *11 Azaroa* | *12 Abendua* |

*B. JASANARAZITAKO KUOTEN AITORPENA*

***IFZ:*** *eragiketa zeinen kontura egin den kontuan hartuta, pertsona edo entitatearen IFZ adieraziko da.*

***Epigrafea:*** *2007ko azaroaren 20ko EHA/3482/2007 Aginduaren XLIV. eranskinean jasotako epigrafeak adieraziko dira.*

***Zerga araubidea:***

- ***P:*** *Zerga tasa osoa*
- ***E:*** *Salbuespena*
- ***R:*** *Zerga tasa murriztua*

***Kantitatea:*** *jasanarazitako kuotak zerga sortutako kantitatea adieraziko da, eragiketa zeinen kontura egin den kontuan hartuta, pertsona edo entitate bakoitzeko eta produktu epigrafe bakoitzeko, eta bi zenbaki hamartar jarriko dira.*

***Unitatea:*** *2007ko azaroaren 20ko EHA/3482/2007 Aginduaren XLIV. eranskinean jasotako unitate kodeak kontuan hartuta, kantitatean adierazitako zerga unitatea izango da.*

***Balioa:*** *lauki hau bakarrik beteko da Tabako Laboreen gaineko zergari lotutako produktuak direnean eta balioaren arabera zehazten den oinarri ezargarria dutenean. Balioa mila eurokotan adieraziko da, bi zenbaki hamartar jarriz.*

***Jasanarazitako kuotaren zenbatekoa:*** *IFZ eta produktu epigrafe bakoitzarengatik ekitaldian jasanarazitako kuoten zenbatekoa adieraziko da.*
*Zerga tasa duten produktuak direnean, lauki honetan "0" adieraziko da.*

## Instrucciones para cumplimentar el modelo 548

**A. DATOS DE CABECERA**

**Identificación**

El campo NIF debe cumplimentarse con el número de identificación fiscal del titular del Establecimiento.

El campo CAE debe cumplimentarse siempre. Se hará constar el Código de Actividad y Establecimiento (CAE).

### Devengo

**Ejercicio:**

Deberán consignarse las cuatro cifras del año al que corresponde el período por el que se efectúa la declaración.

**Período:**

Según la tabla siguiente:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 01 Enero | 02 Febrero | 03 Marzo | 04 Abril |
| 05 Mayo | 06 Junio | 07 Julio | 08 Agosto |
| 09 Septiembre | 10 Octubre | 11 Noviembre | 12 Diciembre |

**B. DECLARACIÓN DE LAS CUOTAS REPERCUTIDAS**

**NIF**: se indicará el NIF de la persona o entidad por cuya cuenta se realiza la operación.

**Epígrafe**: se indicarán los epígrafes establecidos en el anexo XLIV de la Orden EHA/3482/2007, de 20 de noviembre.

**Régimen Fiscal**:

- **P:** Tipo pleno
- **E:** Exención
- **R:** Tipo reducido

**Cantidad**: Por cada persona o entidad por cuya cuenta se realice la operación, y por cada epígrafe de producto se expresará la cantidad con dos decimales, por la que se han devengado las cuotas repercutidas.

**Unidad**: Se expresará la unidad fiscal en la que se ha cumplimentado la cantidad, de acuerdo con los códigos de unidad previstos en el Anexo XLIV de la Orden EHA/3482/2007, de 20 de noviembre.

**Valor**: Esta casilla queda limitada a los productos sujetos al Impuesto sobre las Labores de Tabaco cuya base imponible se determine por valor. Se expresará en miles de euros con dos decimales.

**Importe cuota repercutida**: Por cada NIF y epígrafe de producto se cumplimentará el importe de las cuotas repercutidas en el periodo.
En el supuesto de tratarse de productos con tipo cero, en esta casilla se consignará "0".